

Hueto Arriba - Aperregi

10 Km



Kokapen geografikoa

Azken irteera honetan, Estadio Fundazioak Badaia mendateko herrietara doa bueltan, alde batetik bestera trabesia baten bitartez zeharkatuz mendatea. Ibilbide honen punturik aipagarriena Ganaltoko gurutzea da, hemendik lautadaren edertasuna ikusteko aukera izango dugu. Irteera honen sailtasuna ertain-baxua izanik, bidean gailur bat egiteko aukera ederra suertatuko da.

Badaiaiko mendatea, Euskal Autonomi Erkidegoa mendebaldetik ixten du. Lautada eta Burgoseko komunitatea bananduz. Honen altuera garaiena Oteros mendia da 1.038 metroekin. Vitoria - Gasteizen ipar-mendebaldean kokatuta dago. Obarense Burgoseko mendateetara doazten beste mendi batzuekin batera, kantabriar mendateak duen arteaz osatutako baso handieenetakoaz osatuta dago.

Fauna eta landareria

Altuerarekin lotura handia duen landareri aldaketa handia topa dezakegu (Kliserie efektoa). Hau esan nahi duena da, altuera murriztan artea topatuz eta altuera irabazten dugun einaen haritzak eta pagoak topatuz. Klima ere altuerarekin aldatzen denez, landareria ere aldatu egiten da. Mendebaldeko magaletan ere pinua ere topatu dezakegu, baita larreak goiko zonaldeetan ere.

Animalieei dagokionez, espezie nagusiak dira: Orkatzak, basurdeak, basausoa, eperrak eta azeriak. Bertako abere nagusiak zaldiak eta beheiak dira.

Datu historikoak

Badaiaiko mendatea bere fromazioei esker, altueretako larreak eta kare-harriz osatua dagoela, abeltzaintzarako toki ederra bilakatu izan da. Bere larreak ezin hobeak dira animalien mantenurako, herrietako jendeei asko lagunduz haien lanetan.

Hontaz aparte, ezin dugu ahaztu kare-harriak sortzen dituen ur filtrazioak. Hauek euritakoak edota elurretakoak izanik, ura urte osoan zehar emanik herriei. Aintzinako neberoak ere ezin ditugu ahaztu hauek janaria mantendu eta freskatu egiten bait zuten.

IBILBIDEA

0 Km. / 0 h. 0. Hueto Arriba herritik hasiko gara oinez. Ipar mendebaldeko norabidea hartuz, harri txikiez osatutako bide batetik igaroko gara.

2 Km. / 20 min. Bide printzipala ibiltzen hasi eta gutxira albo batera utziko dugu Olazar aldera doan pista bat hartuta.

6 Km. / 1.15 h. Behin gandorrean gaudela, altuera garaiena hartuko dugu ere. Ganaltora hurbilketa martxa faltako zaigu.

8 Km / 2.15h. Ganaltoko gurutzera helduko gara, hemen geldiune bat egingo dugu argazki batzuk egiteko aukera ere izanik eguraldia lagun izaten badugu.

10 km / 3 h. Aperregira helduko gara. Gailurretik herrira bitarteko jeitsiera zoragarria izango da. Pagadietatik hariztietara pasatuz, basoa zeharkatu egingo dugu mendian behera pistetatik.